

3 asteartea

17:30ean.- Ipuin kontaketa: "Animalien ipuinak". Udal Bibliotekan.

7 larunbata

10:00etan.- Ipuin kontalaritza tailerra. Gaztegunean.
12:00etan.- Liburu aurkezpena "Ehun urte, milaka bizi".
La Salle San Jose ikastetxean.
16:00etan.- Xake partida. Alfíl A - Mundarro A.
Ezkiagako Ludotekan. Antolatzaila: Alfíl elkarte.

8 igandea

08:00etan.- Mendi irteera: Ibilaldi neurtua
Antolatzaila: Aizkorri Mendizale Elkarte.

12 osteguna

09:30ean.- Antzerkia ingelesez ikasleentzat. Usurbe Antzokian.

13 ostirala

22:15ean.- Antzerki Garaia: "Maldito parné". Usurbe Antzokian.

14 larunbata

17:00etan.- Haur zinea: "Barriola, San Adriango azeria". Usurbe Antzokian.

21 larunbata

16:00etan.- Xake partida. Alfíl A - C.D. Eibar A.
Ezkiagako Ludotekan. Antolatzaila: Alfíl elkarte.

22 igandea

08:00etan.- Mendi irteera: Intxorta-Bergara.
Antolatzaila: Aizkorri Mendizale Elkarte.

25 asteazkena

17:30ean.- Ipuin kontaketa: "Otso tonto-tontoak".
Udal Bibliotekan.
19:00etan.- X. Igartza Sarietan irabazle suertatutako liburuen aurkezpena.
Igartzako Burdinolan.

26 osteguna

19:00etan.- Hitzaldia Imanol Korejetarekin, "Ayudar a crecer a nuestros hijos".
La Salle San Jose ikastetxean.

27 ostirala

09:30ean.- Haur zinea eskolaumeentzat: "Artic Tale". Usurbe Antzokian.
22:30ean.- Neguko VII. Bertsopaper sari banaketa saioa.
Arrano kultur elkarteak antolatuta. Usurbe Antzokian.

29 igandea

08:00etan.- Mendi-irteera: Beasain-Lazkao mendi-Ataun-Beasain.
La Salle ikastetxearen mendeurrena.
Antolatzaila: Aizkorri Mendizale Elkarte.
19:00etan.- Loinatz Abesbatzaren kontzertua.
La Salle ikastetxearen mendeurrena.
Antolatzaila: Loinatz Abesbatza.
Andre Mari Zeruratuen Parrokian.

ZINE KLUBA. Antolatzaila: Goieniz Zine-Kluba.

5 osteguna

21:00etan.- "Un verano en la Provenza". Usurbe Antzokian.

12 osteguna


21:00etan.- "Aliento". Usurbe Antzokian.

26 osteguna

21:00etan.- "Quiéreme si te atreves". Usurbe Antzokian.

Kultura informazio gehiago: www.beasain.net

KIROLDEGIA IREKI DA



LA COMPAÑÍA VASCA
GLU-GLU
PRESENTA
"MALDITO PARNÉ",
UNA COMEDIA QUE PROMETE



LOINATZ JAIETAKO
KARTEL LEHIAKETAN
7 URTETIK AURRERAKO
HAURREK PARTE HARTU
AHAL IZANGO DUTE

ERAKUSKETAK

Martxoaren 8rte. ASMUBE (eskulanak). Usurbe Antzokiko Erakusketa Aretoan.

Martxoaren 14tik 22ra. La Salle ikastetxearen mendeurrena. Usurbe Antzokiko Erakusketa Aretoan.

Martxoaren 27tik apirilaren 5era. Mendiko X. Argazki Lehiaketara aurkeztutako lanen erakusketa.
Usurbe Antzokiko Erakusketa Aretoan.

Orduetgia:

Astelehenetik larunbatera/Lunes a sábado: 19:00 - 21:00.

Igande eta jaiegunetan/Domingos y festivos: 12:00 - 14:00 / 19:00 - 21:00.

MARZO

09

BEASAINGO UDAL ALDIZKARIA 2009ko martxoa 06



Beasaingo udala



Martxoaren 8a, Emakumearen Eguna

Esku bete erronka

4 GIZARTEA
Azken lau urteetan 30
lagunetik gora ibili dira
Azulaz programan.

5 HIRIGINTZA
Beasainen etxebizitza
erabilera izan dezaketen ia
40 lokal daude.

6 KIROLA
Koadrilen arteko Areto
Futbol Txapelketa,
pil-pilean.



Beasain iruditan...

Irudi hauek atzera begira jartzeko parada eskaintzen digute. Iraganera jauzi egiteko gonbitea.

1951



Homenaje a la vejez de la Caja de Ahorros Provincial de Gipuzkoa celebrado el 28 de septiembre de 1951.
1 José María Ibarbia. 2 José Joaquín Olano. 3 (?). 4 Martín José Peñagarikano. 5 (?). 6 Bernarda Elizegui. 7 (?). 8 (?). 9 Catalina Aizpeolea. 10 Dominica Zubeldia. 11 Leopoldina Castillo. 12 Martina Jáuregui. 13 Concepción Asensio. 14 Josefa Garmendia. 15 Lucila Fernández. 16 Josefa Antonia Aranburu. 17 Saturnina Rodríguez. 18 Bernardina Pagola. 19 Jacinta Arsuaga.



Ezkerretik eskuinera: Zalataberri baserriko Peñagarikano andrea; Artzabal baserriko Mercedes Jauregi, Juanito Lasaren ama; Juanita Azurmendi, Nekolakoa eta Engraxi Barandiaran, Abarizketa baserrikoa. Bosgarren emakumea nor den ezin izan dugu jakin.

Argazkiak:
Fototeka Kutxa

EMAKUMEA LAN MUNDUAN

Alkatearen txokoa...

Patxi Plazaola



Martxoaren 8-an Emakume langilearen eguna ospatzen dugula eta Beasaindar guztiok haien jardueraren berri izan dezagun, ale honetan ASMUBE Beasaingo emakume elkarteak ekarri dugu gurera. Elkarrekin, emakumearen izena indartzeko sortua, kidez ugaria da eta asmoz bete dago, berezkoa duten izaera zinez indartsua baita. Generoen arteko berdintasuna dute helburu.

Berdintasun horren aldeko borrokan, emakumeak lan munduan tokia egitea izan da erronkarik handienetakoa; ordea, oraindik bide luzea du urratzeko. Eta gure inguruari begiratzen badiogu, burutazio hau datorkigu: nor bere burua lan mundura bideratzean aintzakotzat hartzen al du beasaindar emakumeak hezkuntza teknikoaren bidea?

Gaur egun Emakumea nonahi ikusi dezakegu. Hezkuntzan, osasunean, zerbitzu sozialetan... alabaina, Goierriko tailerretan emakumeen presentzia geroz eta handiago bada ere, oraindik gutxi ikusten direlakoan nago.

Goierriko eskualde honetan dugun sare industrial aurrerantzean mantendu eta indartu nahi badugu, tailerretan ere emakumeek agindu eta lana egin behar dute.

Norberak profesionalki bere bidea jorratzeko eskubide osoa izanik, gure bailaran lan egin ahal izatea ziurtatu nahi duenak ezinbestekoa izango du aurrerantzean ikasketa eta prestakuntza teknikoak lantzea, hauek giltzarri baitira Goierri lana izateko.

Berdintasun bidean aurrerapausoak emateko tailerrek ere emakumeen lantoki bihurtu behar dira. Eginkizun honetan gizarte osoak du zeregina: emakume gazteei eta haien gurasoei ikasketa teknikoak lehen mailakoak direla ikusarazi eta Goierri eskualdeko etorkizun sozio-ekonomikoa ere emakumeen esku dagoela.

Con ocasión de celebrarse el día 8 de marzo el día de la Mujer Trabajadora, la Asociación de Mujeres de Beasain, ASMUBE, ha tenido la oportunidad de presentarse como tal en este número de la revista. Asociación que agrupa a un número importante de mujeres y tiene como objetivo promover la igualdad de género.

Al hilo de esta celebración me surge la siguiente reflexión: ¿Las jóvenes al elegir su recorrido formativo tienen en cuenta las profesiones técnicas?

La presencia de la mujer es relevante, incluso mayoritaria, en la enseñanza, sanidad, servicios sociales, administración pero es escasa su presencia en los talleres del Goierri. Con una mirada de futuro si en la comarca del Goierri se quiere mantener y potenciar el tejido industrial es imprescindible la presencia de la mujer en los talleres.

Cada una es libre de elegir sus estudios pero ello no garantiza un puesto de trabajo. La relación entre estudios y empleo es clave para mantener una estructura social equilibrada. No tienen sentido bolsas de paro femenino y falta de mano de obra en los talleres.

A día de hoy y también en el futuro creemos que en el Goierri el empleo está muy unido a la formación técnica en todos sus niveles.

La presencia significativa de la mujer en los talleres es un objetivo en el camino de la Igualdad. Es tarea de toda la sociedad convencer a las jóvenes y a sus padres de que los estudios técnicos son de primer nivel y que el desarrollo industrial del Goierri también depende de las mujeres.



Ohitura zaharrak berritzen

Marisa Yáñez

Bareak Merkataria Elkartearen Lehendakaria

Ingurugiroa, ingurumena, garapen jasagarria. Azken aldian denon ahotan sarri aurkitzen ditugun hitz potloak. Leku guztietatik iristen zaizkigu oharrak, aholkuak... ingurumena zaintzeko esanez, eskatuz. Azken finean, gure seme-alabei, ondorengoei utziko diegun ondarea izango baita hori guztia. Mezu hauek kasu batzuetan eraginkorrak izatea lortzen dute baina beste askotan mezu huts izatetik ez dira pasatzen; mezua jasotzen duenaren kontzientziaren arabera.

Ohikoa da gainera halakorik entzutea: "zer egin dezaket nik, inguruan ditudan enpresa haundiek ezarritako neurriei inongo kasurik egiten ez badiete eta neurri horiek ez betetzeagatik ordaindu beharreko isunak ordaintzea nahiago badute, edo ondo ateratzen bazaie?" Horratx!! Esandakoa, bakoitzaren kontzientzia...

BAREAK Beasaingo Merkataria Elkarteak bere kontzientzia astindu eta aurrerapauso txiki bat ematea erabaki du. Oraingoan, aspaldiko ohitura zaharra berreskuratzen saiatuko gara eta lehengo moduan, bakoitzak bere poltsa eskuan hartuta egingo dako erosketak sarritza erabaki dugu.

Horretarako lehenik eta behin erosketak poltsa berrerrabilgarriak banatuko ditugu bezeroen artean eta ondoren, poltsa hauen erabilera sarrituko dugu!! Adi, beraz, martxoan erosketak egiterakoan!!

Egon badaude kontzientziak esnatzeko hamaika modu. Ea oraingoan asmatzen dugun eta batzu-batzuk astintzea lortzen dugun!!

Beasaindar guztien esku dago

Editorea:
Beasaingo Udala

Lege Gordailua:
SS-1284-2008

Beasaindik kanpo bizi direnek aldizkaria jasotzeko:



943 02 80 50

@ udala@beasain.net

www.beasain.net

OHARRA

[Beasain]
egunegun

Udalak 100.000 eurotik gora inbertitu ditu azken lau urteetan Auzolan programan

Lan merkaturu sartzeko zailtasunak dituzten pertsonen zuzendua dago Auzolan programa.

Urtero, Udalak zortzi lagun kontratatzen ditu espazio publikoen mantenimenduan, geriatría alorrean edota beste hainbatetan lan egin dezaten. Aurretik formakuntza ere eskaintzen zaie. Aurten pintaketa lanetan ari dira.

Udalaren eta Eusko Jaurlaritzaren artean finantziatzen da egitasmoa. Jaurlaritzak bere gain hartzen du soldatak eta gainerakoak ordaintzea eta Udalak gizarte segurantzaren kostua estaltzen du.



Amaia Iturri eta Karmele Eloa.

Auzolan programa laneratzeko eta gizarteratzeko zailtasunak dituen jendea zuzendua dago. Beasain duela lau urte abiatu zuten programa estrai-nekoz. Orduetik 30 lagunetik gora dira parte hartu dutenak, urtero zortzi laguneko taldeak osatzen baitira.

Aurtengoei pintaketa lanetan aritzea egokitu zaie. "Besteak beste, Udaletxeko aterpea, Gaztegunea, etxe babestua, kaleetako barandak eta Jubilatuen Egoitza margotu dituzte"

dio Beasaingo Auzolan programaren koordinatzaile den Amaia Iturri. Izan ere, onura publikoa dakarten lanak egin ohi dira. Karmele Eloa, Udaleko Ongizateko teknikariaren aburuz "oso tresna indartsua da lan aukerak arrisku egoeran dituzten pertsonentzat. Lan arrunt bat bilatzeko zailtasunak dituen jendea sartzen da, batzuk gainera atzeritarrak dira eta are eta gehiago zailtzen du horrek. Ez dute lanerako ohitura errotuta eta horregatik abstentzio tasak altuak izaten dira. Aurten, alde horretatik, ondo gabiltza. Abstentzioa da gustura dauden jakiteko adierazlerik hoberena". Amaia Iturri pozik ikusten ditu, "ilusio-naturik, gogotsu".

Programaren helburua beste lan bat bilatzeko bidea erraztea da. "Lan merkaturu sartzeko erdiko tresna dela esan dezakegu, lana topatzea da berez helburua eta batzuen kasuan hori zaila den arren, gutxienez oinarrizko ohitura batzuk lantzen saiatzen gara" dio Iturri. Programa Eusko Jaurlaritzak eta Udalak ordaintzen dute. Aurtengoa guztira 146.000 euro kostako da. Kopuru horretatik, Lakuak 114.000 euro inbertitu ditu, ia %78 alegia. Gaintzekoa, Beasaingo Udalak jarri du. Udalaren ardura, lan kontratua sinatu dutenen gizarte segurantzak ordaintzea da. Urteko 27.000 euro eta 32.000 euro artean bideratu ditu Udalak konpromiso hori betetzeko.

Zer da Auzolan programa?

Lan merkaturu sartzeko zailtasunak dituztenei lana aurkitzeko formazioa eta beharrezko laguntza eskaintzen du programa honek.

Nori zuzendua dago Auzolan programa?

- Oinarrizko errenta jasotzen dutenentzat.
- Oinarrizko errenta jasotzen duena familia titularrak denean, familia horretako kideentzat.
- Bazterketa jasatzeko arriskua duen edozeinentzat, gizarteratzeko hitzarmenaren bat sinatu badu.
- Gizarte zerbitzuek diagnostiko sozio-laborala egina duten pertsonentzat.

José, Imanol eta Manolo lanean harra-patu ditugu. Aurtengo Auzolan programako partaideak dira.



Manolo

"Lan mundura sartzeko zailtasunak ditugunontzat aukera ona da".

"El programa representa una buena oportunidad de trabajo para la gente que tenemos limitado el acceso al mercado laboral. Ahora la situación está chungu por la crisis pero antes tampoco estaba nada bien para nosotros. La crisis a quien realmente le afecta es a quien tiene trabajo. A mí me encantaría trabajar en electricidad pero casi todas las empresas te exigen carnet de conducir y yo no puedo sacarlo por problemas de vista".

José

"Lankideon arteko elkarbizitza ez da beti samurra izaten".

"El programa está bien, al final es trabajo y acabas un poco hartu. La gente mayor siempre anda machacando y mandando a los jóvenes pero bueno... A mí el trabajo en sí me gusta. Estoy a gusto en el trabajo pero, claro, la convivencia no siempre resulta fácil y no siempre se separa lo personal de lo laboral".

Imanol

"Lanbidea ikasteko aukera ematen du".

"El programa es muy interesante y además aprendes el oficio. Es una buena oportunidad y esto de pintar no está mal. Cada pared tiene lo suyo. Me gustaría probar fuera de aquí, a ver qué tal me va. Anteriormente intenté entrar de guardia de seguridad pero ni me llamaron. El año que viene volveré a intentar trabajar a través de este mismo programa".

Aitor Aldasoro
Concejal de Urbanismo en Beasain

"Se han solicitado convertir 5 locales en vivienda"

Desde octubre de 2007, está en vigor la ordenanza reguladora que permite convertir las plantas bajas y las entreplantas de los edificios en vivienda. En Beasain, hay casi 40 locales con autorización para tramitar el cambio de uso, de terciario a residencial. De momento, el Ayuntamiento ha recibido siete consultas y cinco están en proceso de tramitación.

Zerk eraman zuen Udala lokalak etxebizitza erabilera izan zezaten araudia aldatzera?

Pertsona guztiak etxebizitza duin bat izan dezaten, udal ordezkariok gure esku dagoena egitea dagokigu. Ez bakarrik etxebizitzaren prezio altuengatik, baizik eta herri honetan lur-eskasia dagoelako. Etxebizitzaren arazoa arintzeaz gain, neurri horri esker, erabiltzen ez diren eta egoera txarrean dauden lokalei erabilgarritasuna emango zaie.

Udalak etxebizitza erabilera jaso dezaketen lokalak zerrenda kaleratu zuen. Zenbat dira?

Herrian 39 lokal daude etxebizitza baimena jaso leza- ketenak. Oraingo, Udaletxera zazpi lagun etorri dira gal- dezka, interesaturik, eta bost dagoeneko izapidetze lanetan ari dira.

Etxebizitza horiek udal etxebizitza tasatuen izendapena jasoko dute. Horrek esan nahi du aurrez erabakitako prezioan salduko dela, ezta?

Hori da. Araututako prezioan salduko dira. Alegia, Eusko Jaurlaritzak Beasainen eraikitzen diren babes ofizialeko etxeentzat finkatuta duen salneurria hartuko da oinarri- tzat.

Jabeek lokal horiek alokairura atera nahi izanez gero, ezingo dizkiete edonori alokatu, ala?

Hala da. Etxebideko zerrendetan izena emana duen jende- ak du lehentasuna, beraz, haiengana jo beharko dute jabeek. Esleipenduna izateko, berriz, Beasainen errolda- tuta egon behar da azken bi urteetan edota azken hamar urteetan, bost urte betez gero.

Manuela Ceak eta Imanol Álvarezek merkaturu etxebizitzaren prezioei ezingo zieten aurre egin ikusirik, lokal bana erosi zuten, hantxe beren etxebizitza eraikitzeko. Pozik daude.

Manuela Cea: "Niretzat hau da etxebizitza izateko aukera bakarra eta horregatik nago pozik"



años te pueden volver a subir el precio. Yo ya me he ido de dos casas y acabas harta. Ésta es la única opción a la que puedo acceder y por eso estoy contenta. De momento, todo me está saliendo bien".

"Según la ordenanza, si es posible el acceso a la vivienda ha de ser del portal. Yo me reuní con mis vecinos y no me dejaron, pero en mi caso, lo bueno es que no está en vía pública, así que hice un anteproyecto y me dijeron que podía seguir. Ahora presentaré el proyecto y a ver si me dan la licencia de obra.

Yo llevo años inscrita en Etxebide pero nunca me ha tocado una VPO. Y los alquileres están muy caros, y encima a los cinco

Imanol Álvarez: "Espekulazioa saihesten du eta hori ondo dago"



bien tardarán un par de meses. Creo que se trata de una iniciativa por parte del Ayuntamiento que hacía falta desde hace tiempo".

"Lo bueno que tiene es que evita las especulaciones y que alguien haga negocio a tu costa. En ese aspecto, esta posibilidad está muy bien. En mi caso particular, me ha venido muy bien porque tendré una vivienda a mi nombre a un precio razonable. Creo que me saldrá un 40% más económico. Decía ¿cómo voy a vivir si destino el 80% de mi salario a pagar la hipoteca?. Ya han comenzado con las obras y si todo va

Relación de edificios en los que es posible aplicar la ordenanza otorgando a los locales la utilidad de residencia:

ALDE ZAHARRA

Erauskin 4 – Planta baja y 1ª.
Andremari 13 – Planta baja y 1ª.
Andremari 13 – Local en planta baja y entreplanta.
San Inazio 1 – Entreplanta.
Martina Maiz 3 – Locales de entreplanta.
Andremari 1 – Entresuelo esquina.

IGARTETXE

Martina Maiz 6, 8 – Locales en planta baja y entreplanta.

ZAZPITURRIETA

Jose Miguel Iturrioz s/n – Locales en planta baja y entreplanta.

ARANTZAZU

Juan XXIII 1 – Locales en planta baja.

URBIALDE

Urbialde plaza 2 – Local en entreplanta, esquina.

ARANGOITI

Nekolalde 2, 4 – Locales en planta baja.
Nekolalde 10 – Local en entresuelo.
Foru Kalea 10 – Porches en planta baja.
Foru Kalea 12 – Porches en planta baja.

FORU KALEA

Foru Kalea 66 – Locales en entreplanta.

EZKIAGA

Ezkiaga etorbidea 3 – Locales en entreplanta.
Oriako pasalekua 2 – Locales en entreplanta.
Oriako pasalekua 10 – Locales en planta baja y entreplanta.

Mariarats 12 – Local en planta baja y sótano.

Mariarats 6 – Locales en entreplanta.
Mariarats 4 – Locales en entreplanta.

AÚN NO CUMPLIENDO ALGUNA DE LAS ESPECIFICACIONES DE LA ORDENANZA, TAMBIÉN SE AUTORIZA EL CAMBIO DE USO EN:

ALDE ZAHARRA

Erauskin 8 – Planta baja.
Andremari 13 – Planta baja con entrada trasera, local en entreplanta y planta baja con acceso junto al portal.

EZKIAGA

Oriako pasalekua 18, 20, 22, 24, 26, 28, 30, 32 – Locales en entreplanta.
Mariarats 12 – Local en entreplanta.



Imanol Aranburu
Carrocerías San Eloi taldeko jokalaria.

“Este año el campeonato está más igualado, quitando a los Nelson P.I.G.”

“Sí que hay piques. A nosotros nos echaron un año del campeonato porque el ambiente se calentó demasiado y acabamos como acabamos. Este año el campeonato está bastante nivelado, quitando al Nelson P.I.G. La cosa está más igualada, porque los chavales están pisando fuerte. Yo me lo tomo en serio, mis amigos me dicen que demasiado. Si toca partido el domingo, yo no salgo”.

Iker Zaldúa, Erkaitz Gandarias, Iban Aranburu, Ibai Arnaiz eta Gorka Rekondo.
Zurriburri taldeko kideak.

“Igande goizetako partidua eta gero, txokolate beroa eman beharko ligukete”

“Gaizki hasi ginen baina orain hobeto ari gara. Finalerako asko falta da oraindik, nahiz eta gu agian aurki kanporatuko gaituzten. Iaz lehenengo bueltan kalera joan ginen eta aurten behintzat bigarren fasera pasa gara. Edonola ere, ez dago pikerik koadrilen artean. Momentuko beroalditik ez da pasatzen. Ez dugu bizitza jokatzen. Guk 13 urte daramatzagu parte hartzen eta zahartzen ere hasita gaude... Igande goizeko 9:00etan, 2º Ctan jokatu behar denean... antolatzaileek txokolate beroa eman beharko ligukete partidua eta gero”. Zurriburri izena nondik datorren galdetuta, hala diote: “Hiztegiak dioenez “gente de muy baja categoría social” esan nahi du”.

Koadrila arteko 33. Areto Futbol Txapelketa

Koadrilak, golak eta pozak



Asier Olabarria, Aitor Etxebarria eta Lander Ugarte
Zepeliñe taldekoak.

“Iazko txapeldunei badiegu errespetua edo beldurra”

“Guretzat larunbateroko plana da futbol partidu bat jokatzera etortzea. Jokatu, izerditu, dutxa bat hartu, afaldu eta parrandara. Okerrena igande goizetan tokatzea izaten da. Baina ez da profesional mailan aritzea bezala. Ondo pasatzea da kontua. Gaur, adibidez, (otsailak 14), zaila daukagu irabazteko. Iazko txapeldunen aurka dugu, eta badiegu errespetua edo beldurra. Denok ezagutzen dugu elkar, agian pike gehiago sortzen da herrien artean, zeren beste herrietako koadrilak ere etortzen dira. Beti egon izan dira Ordiziakoak, Legorretakoak...”.



Jenaro Sánchez eta Juan José Lorenzo

Koadrila arteko 33. Areto Futbol Txapelketa pil-lean dago. 29 talde hasi ziren jokatzeko eta dagoeneko 16 geratzen dira, gainontzekoak kanporatuak izan baitira. Oraindik azkarregi da ezer iragartzeko baina kinielak egiten hasita, Nelson P.I.G., Muebles Oyarbide edo Txintxarri Loinatz jaietan jokatuko den finalean egon daitezkeela esan daiteke. “Nelson P.I.G. taldea da ezberdintasuna markatzen duena. Iaz finalera iritsi zen taldea, Potrozorri adibidez, klasifikaziotik kanpo dago jada”. Hori da Jenaro

Sánchezek egingo lukeen apustua. Eta zerbait badaki. Juan José Lorenzo eta biak arduratzen dira txapelketa antolatzaiez eta arbitro lanak egiteaz ere. Jenarok 15 urte daramatza eta 25, Juan Josék. Ez da lan makala. Bai sakrifikatua. Baina baita pozik egoteko modukoa ere, txapelketak duen arrakasta ikusita. “Aurten 29 taldek hartu dute parte baina 43ra iritsitako urteak izan ditugu”, dio Jenarok. “Ondoko herrietatik ere beti etorri izan dira koadrilak, Ordiziatik, Lazkaotik, Ormaiztegitik... aurten, Alegiako bi talde ditugu. Baina behera egin duela ukaezina da, batik bat, kirol eskaintza gero eta zabalagoa delako”. Hala ere aise eusten zaio. Baita etorkinak animatu direlako ere. Bi talde osatu dira aurten, bata errumaniarrena, Bradu Viseu, eta bestea hegoamerikarrena, Latin Bhothers. Edonola ere, primeran pasatzeko aukera aproposa da txapelketa. “Ondo pasatzeko eta koadrilak elkartuta mantentzeko urteak aurrera doazen heinean. Hori garrantzitsua da. Gainera, urtero finala Loinatz jaietan jokatzen dugu eta beti Koadrilen Egunari hasiera partiduak ematen dio”. Txapelketaren atzera begirako bat eginez gero, finalik gehien irabazi dituen taldea Zumazuritze da, azkena 2000. urtean. 95-96 denboraldian ere finalera iristea suertatu zitzaion baina urte hartan Auskalo taldea gailendu zen. Azken hiru urteetan Nelson P.I.G.ek irabazi du txapelketa. “Futbol afizionatuen ibilitako jendeak ere hemen amaitzen du, Beasainen ibilitakoek eta kategoría altuagoetan jokatu arren, jarraipenik izan ez dutenek. Nelson P.I.G. en futbolean jokatu duen jendea dago: Garmendia, Torres, Sukia, Aldanondo, Iriarte, Remírez... hauek jokatzen hasi direnetik urtero iritsi dira finalera. Baina batezbesteko maila ere nahikoa ona da”, dio Sánchezek. Tamalez, ez dago neska talderik, “eta ez, ez dugulako nahi izan, baizik eta ez dagoelako eskaririk”. Txapelketaren jatorrietatik ere urruntzen joan dira ezinbestean. “Hasieran aisialdi talde bat zegoen eta ibilaldietarako eta ikasturte amaierako bidaia egin ahal izateko, txanpon batzuk biltzeko asmoarekin hasi ginen. Gero, ordea, gurasoak behar zuten guztia eta gehiago ematen hasi ziren seme-alabei eta hura han bukatu zen”.



Jakes Gibelalde eta Aitor Irizar
Nelson P.I.G. eta Zepeliñe taldeko jokalaria, hurrenez hurren.

“Finala ikustera jende pila hurbiltzen da”

“Kirol apur bat egin eta lagunekin egoteko primerako aitzakia izaten da. Giro ona sortzen da. Finala urtero Beasaingo koadrilen egunean jokatzen da eta jende pila hurbiltzen da ikustera”.



Mikel Aldanondo, Jon Garmendia eta Egoitz Sukia.
Nelson P.I.G. taldekoak.

“Haserretzen gara, baina ordu erdian ahaztuta izaten dugu”

“Iaz irabazi egin genuen eta aurten iazko lana berdindu nahi dugu. Noski, denoi irabaztea gustatzen zaigu eta partidua nola joan den arabera, galdutakoan haserretzen gara, baina ordu erdi barru ahaztuta izaten dugu”.

Josean López
Osinbeltz taldekoa.

“Los buenos son los de siempre”

“Algunos vienen a disfrutar y otros a ganar. Siempre jugamos los mismos y ya nos conocemos. Los buenos son los de siempre. El ambiente es muy bueno. Nosotros llevamos 8 ó 9 años participando. Se puede decir que es algo vocacional porque hay veces que tienes partido a las seis de la tarde y te fastidia todo el día”.



Asmube Beasaingo Emakume Elkarte



Ezkerretik eskuinera, Ramoni Azurmendi, Loli Arrieta, Isabel Bodego, Txaro Albiztur, Joxepi Jauregi, Mari Paz Álvarez, Begoña Lizarralde, Amaia Gómez eta Yulene Fernández.

“Azterketa bat egin behar dugu gaur egungo emakume gaztearen beharrak eta nahiak ezagutzeko”

Datorren martxoaren 8an, Emakumearen Nazioarteko Eguna ospatuko da. Gizon eta emakumeen arteko parekidetasunak oraindik jomuga urrun duenaren adierazle da egun hori. Horretaz hitz egin nahi izan dugu Beasaingo Emakume Elkartearekin. Etxeko-andreak sukalde zokotik ateratzen ez ziren garaietan hasi ziren euren rolaren aldaketa aldarrikatzen. Ezkondu ondoren, emakumearen patua idatzita zegoen urte haietan, alegia. Lantegia utzi eta senarra zaindu eta seme-alabak izatera kondenatua zegoen garaietan. 1990ean eratu zen elkarte. Gaur egun, 276 bazkide dira eta beste erronka batzuk dituzte esku-artean, nagusiki, gazteak erakartzea.

¿Cuáles son los orígenes de Asmube? ¿Cuándo sentisteis la necesidad de juntaros por y para algo?

Isabel: Hace 19 años. Empezamos a juntarnos en la plaza después de llevar a los críos a la ikastola. Éramos un grupo de conocidas. Seríamos unas 14 mujeres y comenzamos con cursos de geriatría, ganchillo...

Y también acudíais a Emakunde para asesoraros.

Isabel: Iba una compañera y en Emakunde nos orientaban. Nos aportaban ciertas pautas para continuar con nuestro trabajo. Alguna vez también vino Txaro Arteaga.

Si echáis la vista atrás, en toda esta trayectoria, ¿qué ha cambiado? ¿estáis más sensibilizadas, menos...?

Amaia: Poco, la sensibilización es escasa.

Julene: Como en todas las asociaciones, la gente está acostumbrada a que todo lo haga la junta. Y la participación no es la que debería de ser.

Pero ¿ya para entonces estábais concienciadas con la lucha por los derechos de la mujer?

Julene: Sí. Yo creo que sí. Había que llenar una serie de necesidades que había. Por aquel entonces uno de los fines era sacar a las amas de casa de la cocina, de su casa. Y ahora ha salido de casa pero como está trabajando y ocupada, tampoco adopta un compromiso respecto a la asociación.

Joxepi: La mujer buscando su liberación, creo que se ha atado más. Antes se encargaba de las labores de casa. Ahora tiene que cumplir un horario de trabajo fuera de casa y encima llevar la casa. Yo no sé hasta qué punto es la liberación.

Begoña: En la teoría sí, pero en la práctica...

Julene: Pero igual en las parejas jóvenes se están repartiendo más las tareas de casa.

Mari Paz: Aunque la pareja participe, si hay hijos, el tiempo es limitado. Ese tiempo que antes queríamos compartir con otra gente, ahora lo necesitamos para estar con nuestra pareja e hijos. Antes había que salir del núcleo familiar para ver otras cosas y ahora necesitamos ese tiempo para dedicarlo a ese núcleo.

Amaia: La mujer joven trabaja en casa, fuera, hace deporte, recibe formación porque tiene un curriculum que completar, y la mujer de más edad también tiene que trabajar en su casa y luego igual tiene que echar una mano a sus hijos cuidando a los nietos. Tienen que dedicar tiempo a su casa y a la casa de sus hijos y eso se nota.

Mari Paz: Eso se percibe mucho aquí.

Yulene: En la edad en la que estamos, nos ha tocado coger el relevo a los padres.

Mari Paz: A mí una vez me dijo una mujer que somos la generación del medio y la que hace de puente entre hijos y nietos.

Ramoni: Es que los jóvenes tienen que echar mano de los abuelos. Aunque tengan una trabajadora en casa, porque esa persona como mucho trabajará ocho horas. Hoy la juventud lo tiene muy crudo.

Mari Paz: Organizamos charlas y muchas no pueden acudir porque tienen que recoger a sus nietos de la ikastola.

¿Os consideraréis feministas o decís que estáis a favor de la igualdad?

Joxepi: A mí lo de feminista y machista no me va. Yo no me siento feminista.

Mari Paz: Yo digo: lo que no quiera para mí, que no lo quiera para ti.

Begoña: Yo sí me considero feminista. Lo que ocurre es que es muy difícil llevarlo a la práctica.

Yulene: ¡Yo también! Feminista no es igual a machista cambiando sólo el género. Las feministas no dicen que lo que no quieran para ellas lo quieren para el hombre ¿eh? Hay muchos tipos de feminismo.

Joxepi: Yo he dicho 50 y 50.

Begoña: También ha habido retrocesos en la historia del feminismo.

Joxepi: Ha habido un feminismo que era machismo, hubo una etapa en la que fue muy duro. En aquel momento perdió mucho. Cogió mal nombre.

Julene: ¿A quién le has oído esa mala película? Hace muy poco tiempo nuestro cuerpo ni siquiera era nuestro cuerpo, ni nuestro trabajo, ni nuestro dinero. Nada era nuestro. Éramos cosas y se dudaba de si teníamos alma. ¡Si decís a estas alturas que no somos feministas, por favor, iros al limbo!

Joxepi: Película mala no, la realidad.

Pero quizás sin la aportación del feminismo, ahora no estaríamos hablando de estas cosas. ¿Qué pensáis?

Mari Paz: Ha ayudado en el camino hacia la igualdad. La igualdad dentro de las diferencias de cada cual, claro está.

Begoña: Las diferencias son únicamente biológicas. El feminismo únicamente dice que esas diferencias no tienen por qué existir. Primero alguien tiene que abrir los ojos y luego seguir poco a poco y eso lo ha hecho el feminismo.

Julene: Las diferencias que hay entre hombres y mujeres son mínimas, son físicas y no psicológicas, como muchos han querido. Fijate la iglesia católica, ¡la de vueltas que le tendrá que dar antes de que haya una mínima paridad! Hace 20 años no nos dejaron entrar a una acería de aquí a un grupo de mujeres que teníamos gestionada la visita porque íbamos a distraer a los hombres.

Mari Paz: Hoy te dejarían entrar. Ahí está la diferencia.

Julene: Hoy me dejarían con permiso especial para mujeres. Que no me vengan a hablar de paridad... Y cuando en la escuela hay que preparar los disfraces ¿a quién mandan la carta? Pone “queridas madres...”.

¿Creéis que la verdadera revolución de la mujer ha sido retrasar 10 años la maternidad?

Julene: En esos diez años da tiempo a colocarse y conseguir un mejor puesto de trabajo.

Begoña: Ha sido un avance.

Habéis recalado la falta de compromiso por parte de las mujeres jóvenes. Tenéis un estudio pendiente, ¿no es así?

Amaia: Vamos a hacer un estudio a nivel comarcal de la mano de Goieki. El objetivo es identificar qué necesidades e inquietudes tiene la mujer, principalmente, las jóvenes. Es un diagnóstico para conocer cómo podemos atraer a gente nueva que trabaje por la igualdad.

Begoña: El problema es que no se identifican con lo que nosotras representamos.

Julene: Les parece que tienen todas las revoluciones ganadas.

Amaia: Igual tenemos que poner una guardería en la asociación...

[Beasain]
egunez egun

Udala herriko hainbat espaloi berritzen ari da

Kaleei txukun eta egoera onean eusteko ahalegina egiten ari da Udala. Igartza-Oletan lanean ari dira eta hastear daude Mateo Muxika, Arantzazu eta Errekarte kaleetan.

Beasaingo Udala egoera eskasean zeuden herriko hainbat espaloi berritzen ari da, Igartza-Oletakoa, kasu. Lanak amaitzeko bi hilabete epea finkatu zen eta beraz, martxo amaierarako bukatuta izango dira. 241.182 euroko aurrekontua dute.

Mateo Muxika eta Arantzazu kaleetan ere espaloiak txukuntzen hastear daude. Kasu honetan, 112.556 euro bideratuko dira lan horietara. Eta azkenik, Errekarte kalean ere hilabete honetan bertan hasiko dira esku-hartzen. Espaloi berritu eta igoerak berdinduko dituzte. Horretarako aurrekontua 231.890 eurokoa da. Inbertsio hauek 2009ko udal aurrekontuetan sartzen dira.



Igartza-Oleta kalea.



Mateo Muxikaren atzekaldea.



Mateo Muxika eta Arantzazu kaleak.



Errekarte kalea.

Joan Iturralde parkeko lanak, martxa onean

Otsailaren hasieran ekin zioten obrei eta lau hilabete iraungo dute. Asfaltozko estaldura berrituko da eta haur-jolasak ipiniko dira.

Joan Iturralde parkeko lanak aurreikusitako martxan ari dira. Langileek otsailaren 2an ekin zieten egin beharreko eta lau hilabetez arituko dira, alegia, maiatzaren amaierarako edo ekainaren hasierarako bukatuko dituzte. Besteak beste, zorua berrituko da eta haur-jolasak ipiniko dira.



Oriamendi kalea eta Nekolalde auzoa lotuko dituen igogailua jartzeko lanak esleitu dira

Udalaren konpromisoetako bat da irisgarritasunaren aldeko apustua egitea, herritarren bizi-kalitatea hobetze aldera. Asmo horien baitan sartzen da Oriamendi eta Nekolalde lotzea.

Udalak esleitu ditu jada lanak eta beraz hastear dira Oriamendi kaletik Mekolalde auzora igotzeko erabili ahalko den igogailua. Ez da irisgarritasuna hobetu den gune bakarra. Jubilatuen Etxera edo Andramendi ikastolara heltzeko ere jarri da igogailua eta baita Udaletxe barruan ere. Guztira, 490.124 euro inbertitu dira.



Jarriko den igogailuaren fotomontajea.

Igartza sariak

Katixa Agirreren "Habitat" ipuin liburua aurkeztu dute Bilbon



Katixa Agirre.



“Etxeak gure habitat ideala ematen du baina gure arazoan iturburua ere bada”

Zer da "Habitat" izenburupean kontatu nahi izan duzuna?

Ipuin-liburua da eta etxebizitzaren gaia da denei batasuna ematen diena. Etxebizitza lortzeko arazo ageri da, saihestezina delako, baina ez da hori bakarrik. Etxean gerta daitekeen edozer azaldu, mudantza, bisita desererosoa... Ipuin guztiak independenteak dira.

Eta zergatik etxea?

Konturatu nintzelako neure buruan gori-gorian zeogoen gaia zela eta ingurukoaren artean ere kezka nagusia zela, hipoteka, alokairua... joko handia eman zezakeela pentsatu nuen. Ematen du etxea gure habitat ideala dela baina arazoan iturburua ere bada. Gai bezala, aberatsa da eta pentsatu nuen zerbait atera nezakeela hortik.

Aitz-Zorrotz elkarteak bere 75 urteko ibilbidea liburu batean jaso du



Argazkia: Juanxio Unanua.

Diamantezko ezteiak ospatzeko aitzakian, Aitz-Zorrotz elkarteak bere jatorria eta ibilbidea jasotzen dituen liburu bat kaleratu du, Jon Ordoñez kazetari beasaindarraren eskutik. Oraingo eta lehengo argazki horietan, liburu mardula da eta euskaraz eta erdaraz dago idatzita. Liburua Mirentxu liburu-dendan eta Beasaingo Liburutegian dago salgai 40 eurotan.

Egaña, Lizaso eta Arzallus Arrano Kultur Elkartearen Bertso Jaialdian

Beasaingo Arrano Kultur Elkarteak, VII. BERTSOPAPER LEHIAKETA abian du. Sari banaketa martxoaren 27an izango da Usurbe Antzokian eta sariak emateko aitzakian bertso saio ederraz gozatzeko parada izango da. Honako bertsolariak hartuko dute parte: Andoni Egaña, Sebastian Lizaso, Iker Zubeldia, Amets Arzallus, Gorka Maiz eta Julen Agirre. Bertso saio borobila!



Ba al dakizu... Udalak bilobak zaintzen dituzten aiton-amonentzat tailerra antolatatu duela?

Martxoaren 23, 25, 30 eta 31n eta apirilaren 1ean egingo da. 15:00etatik 17:00etara, Udaletxean. Argibide gehiagorako: 943 02 80 75.

Joan den hilaren 20an aurkeztu zuten Bilbon Katixa Agirreren "Habitat" ipuin liburua. Duela bi urte Beasaingo Udalak, Elkar argitaletxeak eta CAFek antolatzen duten Igartza saria jaso zuen idazle gasteiztarrek eta labetik atera berri dute liburua. Urte hartan, X. edizioan hain justu, akzesita eman zioten Irati Jimenez eta apirillean argitaratzekotan da "Nora, ez dakizu nori" izenburua daraman liburua.


Udaleko kultura sailak bultzata, aurreko Liburu Azokan, irakurle talde bat osatu zen. Helburua da liburuak irakurri, idazleak gonbidatu eta solasaldiak izatea. Esperientziaren Eskolako edota Euskaltegiko ikasleak animatu ziren hasiera hartan baina taldea irekita dago. Hurrengo hitzordua Agirrekin eta Jimenezekin izango da. Liburu biak Beasainen martxoaren 25ean aurkeztuko dira eta ondoren idazlearekin berarekin komentatzeko aukera izango dute irakurleek. Irakurtzeko konpromisoa hartzen duten guztiak liburuak doan banatuko zaie aurkezpen egunean, gero solasaldietan parte hartzeko.

Beasainen Agirreren eta Jimenezen liburuen aurkezpenean, liburuak irakurtzeko konpromisoa hartzen dutenei doan banatuko zaizkie, gero idazleekin egingo den solasaldian parte hartzeko.

Zer diozu Haur Zineaz?


"Nik "Perez Sagutxoa" bakarrik ikusi dut eta polita iruditu zitzaidan. Sagutxoaren istorioa da. Mutil gaizto batek harapatu egin nahi du ospetsu egiteko. Nahiko nuke prinzesen inguruko pelikula bat ikustea".

Maria Iturrioz



"Nik zinean ikusi dudana azkena "Madagascar" filma da. Haur Zinea dagoenean pozik joaten naiz ikustera, baina aurretik zer pelikula botako duten eta zertaz doan begiraten dut. Gustukoa bada, ondo".

Unax Aldanondo



"Perez Sagutxoa barregarria da. "Wins, erreinu galduren sekretua", berriz, apur bat tristea eta beldurgarria. Niri asko gustatzen zait zinera joatea. Orain "Shin Chan" ikusi nahi dut. Lagun batek esan dit Usurbe Antzokian bota behar dutela".

Leire Bikuña



"Nik "Ahatetxo itsusia" eta "Olentzero" ikusi ditut. Gehiena lehenengoa gustatu zitzaidan. Amaiera ona du eta ahatetxoa pozik geratzen da. "Olentzero" ikustera lehengusuekin joan nintzen eta berriro ikusi nahiko nuke. "Perez Sagutxoa" berriz, etxean ikusten dut, bideoan daukat-eta".

Beñat Iturrioz

